

EUSKO JAURLARITZAKO EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILAREN ARGIBIDE-OHARRA

Argibide-ohar honek honako dokumentu hauei egiten die aipamena:

- **10/2020 Errege Dekretu Legea, martxoaren 29koa, oinarrizko zerbitzuak ematen ez dituzten besteren konturako langileentzako baimen ordaindu berreskuragarria arautzen duena, COVID-19ren aurkako borrokaren testuinguruan herritarren mugikortasuna murrizteko.**

10/2020 Errege Dekretu Legearen, martxoaren 29koaren, oinarrizko zerbitzuak ematen ez dituzten besteren konturako langileentzako baimen ordaindu berreskuragarria arautzen duenaren, COVID-19ren aurkako borrokaren testuinguruan herritarren mugikortasuna murriztekoaren, I. Eranskina.

- **SND/307/2020 Agindua, martxoaren 30ekoa, martxoaren 29ko 10/2020 Errege Dekretu Legea aplikatzeko interpretazio-irizpideak eta bizilekutik lantokirako beharrezko joan-etorrietarako erantzukizunpeko adierazpenaren eredia ezartzen dituena.**
- **Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak industria-sektorearentzat egindako martxoaren 31ko interpretazio-oharra, martxoaren 29ko 10/2020 Errege Dekretu Legearen, oinarrizko zerbitzuak ematen ez dituzten besteren konturako langileentzako baimen ordaindu berreskuragarria arautzen duenaren, aplikazioari buruzkoa.**
- **Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioaren azalpena, martxoaren 29ko 10/2020 Errege Dekretu Legearen bitartez Gobernuak hartutako neurri berrien ondorioz salgaien garraioaren arloan aplikatzeko irizpideei buruzkoa.**

Hitzaurrea

Eusko Jaurlaritzak argitu nahi du dokumentu honetan ekonomia eta enpresa jarduerari egiten zaizkion aipamen guztietan, beti eta salbuespenik gabe, aurretik jartzen dela Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak Osasun Sailarekin eta Osalanekin elkarlanean prestatutako segurtasun eta osasun protokoloaren mutur-muturreko ezarpena.

https://bideoak2.euskadi.eus/2020/03/25/news_61109/PROTOCOLO_INDUSTRIA_23_03_20.pdf

Argibide-oharra

Joan den martxoaren 29an Ministroen Kontseiluak 10/2020 Errege Dekretu Legea onartu zuen, oinarrizko zerbitzuak ematen ez dituzten besteren konturako langileentzako baimen ordaindu berreskuragarria arautzen duena, COVID-19ren aurkako borrokaren testuinguruan herritarren mugikortasuna murrizteko.

Eusko Jaurlaritza Errege Dekretu horretako interpretazio-irizpideak argitzeko lanean aritu da, Euskadiko enpresek, legea errespetatuz eta **beti langileen segurtasuna eta osasuna lehenetsita**, jardueraren zati bati eutsi ahal izan diezaioten, egungo egoerak eragindako arrazoizko zailtasunen baitan.

Dokumentu honen lan-ildoak izan da ahalik eta gehien argitzea zein jarduera egon litezkeen jasota Errege Dekretuaren I. Eranskinean, eta, ondorioz, zein jarduera mantendu daitezkeen funtsezkotzat jotzen direlako. Horrez gainera, Errege Dekretuak aukera ematen du funtsezkotzat jotzen ez badira ere hainbat jarduera egiten jarraitzeko, funtsezko jarduera jakin batzuen katean ezinbestekoak direlako.

Horrela bada, eta funtsezko jardueren eta funtsezkoak ez direnen arteko ezberdintasuna ahanzi gabe, eta argibide-ohar honen eraginetarako, eta ahalik eta informazio zehatzena emateko helburuarekin, hainbat arrazoiengatik egiten jarrai daitezkeen jarduerak aipatuko ditugu, eta zergatik jarrai dezaketen aipatzen joango gara.

- **10/2020 Errege Dekretuaren 4. artikuluan** honako hau jartzen du **ezinbesteko gutxieneko jarduerari buruz**:

“Artikulu honetan araututako baimen ordaindu berreskuragarria aplikatu behar duten enpresek, behar izanez gero, ezinbesteko gutxieneko jarduerari eutsi ahal izango diote gutxieneko langile-kopuruaren edo ezinbesteko lan-txandean bidez. Jardueraren edo gutxieneko langile-kopuruaren edo txandean erreferentziatzat asteburu arruntetako edo jaiegunetako jarduera hartuko da.”

4. artikuluari dagokionez, funtsezkoak ez diren jarduerak ezinbesteko gutxieneko jarduerari eutsi ahal izango diote, eta *“jarduera horren edo gutxieneko langile-kopuruaren edo txandean erreferentziatzat asteburu arruntetako edo jaiegunetako jarduera hartuko da”*.

Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak gaur, martxoak 31, argitaratu duen argibide-oharraren arabera, eta 4. artikuluan jartzen duenari jarraituz, industria horiek ezinbesteko gutxieneko jarduerari eutsi ahal izango diote (lan-txandean edo gutxieneko langile-kopuruaren bidez) erreferentziatzat asteburuetako edo jaiegunetako jarduera hartuta.

- ✓ Industria-jarduerak erreferentzia hori ez duen kasuetan, **ekoizpen txikieneko aldia hartuko da kontuan.**
- ✓ Industria-jardueraren gutxieneko mantentze hori bereziki preskribatutzat jo behar da zenbait egunez geldialdi luzea egiteak kalte handiak eragiten dizkien eta, ondorioz, berriz ekoizten hastea eragozten edo zailtzen dien edo istripuren bat izateko arriskua sortzen dien industria-instalazioentzat.

Gutxieneko jarduera. Ezinbesteko gutxieneko jarduera da, beraz, enpresari barne-egoera optimoa eta ekoizpen-jarduera nahikoa mantentzea ahalbidetzen diona, eta jarduera ixtea eragin dezaketen egoera traumatikoak (eskaeren galera, kontratuak ez betetzearen ondorio diren zehapenak, etab.) saihestea ahalbidetzen diona.

Antolaketa-protokoloa enpresan. Gomendagarria iruditzen zaigu enpresek ezinbesteko gutxieneko jarduerari eusteko protokolo bat egitea, eta bertan aipatutako elementuak aztertzea eta ezinbesteko gutxieneko jarduera horri eusteko proposamena egitea. Protokolo horretan baimen ordaindu berreskuragarria hartu behar ez duten eta, beraz, euren lanpostuetara joan behar duten enpresako pertsona espezifikokoak aipatuko dira. Aholkatzen da protokoloa, hala eskatzen zaienean, agintarien esku eta, hala dagokionean, langileen ordezkarien esku jartzeko modukoa izatea.

- **Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak industria-sektorearentzat egindako martxoaren 31ko interpretazio-oharra, martxoaren 29ko 10/2020 Errege Dekretu Legearen, oinarritzko zerbitzuak ematen ez dituzten besteren konturako langileentzako baimen ordaindu berreskuragarria arautzen duenaren, aplikazioari buruzkoa.**

Gaur eguerdian argitara eman den ohar horretan 4. artikuluari buruz jada adierazi diren gaiak aipatzen dira, eta azken paragrafoan honako testu hau jaso da:

*“Bestalde, Errege Dekretuaren 2. artikulua ezarpenetik salbuetsita geratzen dira era guztietako produktuen, ondasunen eta materialen **inportazio eta esportazio jardueretan** diharduten langileak ere, hornikuntzarako edo nazioarteko kontratuetan hartutako konpromisoak betetzeko oinarritzotzat jotzen diren neurrian.”*

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak Errege Dekretuko I. Eranskinean jasotakoei ematen zaien tratamenduaren kidekoa ematen die jarduera horiei, eta jarraian deskribatuko ditugu.

- **SND/307/2020 Agindua, martxoaren 30ekoa, martxoaren 29ko 10/2020 Errege Dekretu Legea aplikatzeko interpretazio-irizpideak eta bizilekutik lantokirako**

beharrezko joan-etorrietarako erantzukizunpeko adierazpenaren eredia ezartzen dituen.

Agindu horretan ezarritakoa betetzeko, komenigarri jotzen da langileei bizilekutik lantokirako joan-etorriak erraztuko dizkieten erantzukizunpeko adierazpenak prestatzea.

Era berean, eta Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak argitaratutako interpretazio-oharrean baimendutako inportazio eta esportazio eragiketei dagokienez, komeni da erantzukizunpeko adierazpena egitea dagokion garraio-zerbitzuaren beharra justifikatzeko.

- **Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioaren azalpena, martxoaren 29ko 10/2020 Errege Dekretu Legearen bitartez Gobernuak hartutako neurri berrien ondorioz salgaien garraioaren arloan aplikatzeko irizpideei buruzkoa.**

Bestalde, adierazi behar da salgaien garraioa funtsezko jardueratzat hartzen dela, eta ez dagoela, beraz, inolako murrizketarik. Garraioaren sektoreko langileek ez dute derrigorrean hartu behar baimen ordaindu berreskuragarria; hala ere, normalean funtsezkoa ez den jarduera-sektore espezifiko batentzat lan egiten badute, hartu ahal izango dute. Horren harira, beraz, adierazi behar da ez dagoela salgaien garraioa eragozten duen inolako debekurik.

- **10/2020 Errege Dekretu Legearen, martxoaren 29koaren, oinarritzko zerbitzuak ematen ez dituzten besteren konturako langileentzako baimen ordaindu berreskuragarria arautzen duenaren, COVID-19ren aurkako borrokaren testuinguruan herritarren mugikortasuna murriztekoaren, I. Eranskina.**

Garrantzikoa da zehaztea zein industria eta enpresa jarduerak jarrai dezaketen lanean Euskadin; hauek izanik:

- ✓ Errege Dekretu Legearen ezarpen-esparruan, I. Eranskinaren babesean, zuzenean funtsezkotzat jotzen direnak.
- ✓ Horien hornikuntza-katekoak izanik funtsezkotzat jotako zerbitzuak behar bezala emateko ezinbestekoak direnak.

Eragin horietarako, eta aipatutako Eranskin horren arabera, honakoak dira funtsezko jarduerak:

1. atala: martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren, COVID-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duenaren, 10.1, 10.4, 14.4, 16, 17

eta 18 artikuluen eta agintaritza eskudunak eta ordezkariak duten agintaritza eskudunek onartutako araudiaren babesean garatzen jarraitu behar diren jarduerak egiten dituztenak.

2. Atala: Merkatua hornitzeko katean eta behar-beharrezko zerbitzuak eta ondasunak, horien artean, janariak, edariak, animalientzako janaria, higieneko produktuak, botikak, produktu sanitarioak edo osasuna babesteko beste edozein produktu, ekoizten dituzten zentroetako zerbitzuen funtzionamenduan parte hartzen duten jardueretan lan egiten dutenak; produktu horiek sortzen diren lekutik behar diren lekuraino banatu ahal izango dira.

5. atala: Eranskin honetan jasotako funtsezko jarduerak behar bezala garatzeko beharrezko materialak, ekipamenduak eta hornidurak eskaintzen dituzten manufaktura-industriako ekoizpen-jarduerei eusteko ezinbestekoak direnak. Alde horretatik, adierazi behar da *“funtsezko jarduerak behar bezala garatze”* horrekin duten lotura justifikatzen den neurrian egin ahal izango direla.

* Ikus dokumentuaren bukaera

Alde horretatik, adierazi behar da, erreferentzia moduan, manufaktura-industria jasota dagoela JESNren C Multzoko jarduera-zerrendan.

6. atala: Pertsonen nahiz salgaien garraio-zerbitzuak, alarma-egoera deklaratu zenetik gauzatzen jarraitzen direnak, betetzen dituztenak, bai eta horretarako erabiltzen diren baliabideak mantentzea ziurtatu behar dutenak ere, agintaritza eskudunak eta ordezkariak duten agintaritza eskudunek alarma-egoera deklaratu zenetik onartutako araudiari jarraituz.

FUNTSEZKOTZAT KATALOGATUTAKO JARDUERETARAKO EZINBESTEKOTZAT JO **DAITEZKEEN JARDUEREN ZERRENDA**

JESNren C atalari jarraituz, eta Manufaktura Industriari dagokionez:

Funtsezkoak dira, martxoaren 14ko eta 29ko bi EDLtan funtsezko gisa katalogatuta daudelako:

10.- ELIKAGAIEN INDUSTRIA

11.- EDARIEN FABRIKAZIOA

17.- PAPERAREN INDUSTRIA

21.- FARMAZIAKO PRODUKTUEN FABRIKAZIOA

Ezinbesteko jarduerak izango dira, baldin eta jarduera zerbitzu sanitarioak eta soziosanitarioak, industria farmazeutikoa edo elikagai-industria emateko ekipoak fabrikatzera bideratzen bada.

13.- EHUNGINTZA

14.- JANTZIGINTZA

15.- LARRUGINTZA ETA OINETAKOGINTZA

22.- KAUTXUZKO ETA PLASTIKOZKO PRODUKTUEN FABRIKAZIOA

23.- METALEZKOAK EZ DIREN BESTE PRODUKTU BATZUEN FABRIKAZIOA

25.- METALEZKO PRODUKTUEN FABRIKAZIOA, MAKINERIA ETA EKIPOAK IZAN EZIK

26.- PRODUKTU INFORMATIKO, ELEKTRONIKO ETA OPTIKOEN FABRIKAZIOA

31.- ALTZARIGINTZA

32.- BESTE MANUFATURA INDUSTRIA BATZUK

Ezinbestekoak izango dira, energia eta ura hornitzea ziurtatzeko:

19.- KOKE-LANTEGIAK ETA PETROLIO-FINDEGIAK

20.- INDUSTRIA KIMIKOA

26.- PRODUKTU INFORMATIKO, ELEKTRONIKO ETA OPTIKOEN FABRIKAZIOA

27.- MATERIAL ETA EKIPO ELEKTRIKOEN FABRIKAZIOA

28.- NCOP MAKINEN ETA EKIPOEN FABRIKAZIOA

Eta, edonola ere, funtsezko zerbitzu guztien funtzionamendu egokia bermatzeko:

33.- MAKINEN ETA EKIPOEN KONPONKETA ETA INSTALAZIOA

Ezinbestekoak izango dira, bidaiarien eta salgaien garraioa ziurtatzeko:

29.- MOTORDUN IBILGAILUEN, ATOIEN ETA ERDI-ATOIEN FABRIKAZIOA

30.- BESTE GARRAIO-MATERIAL BATZUEN FABRIKAZIOA

Kasu horietan, eta eskatzen bazaie, enpresek aztertu eta justifikatu egin beharko dute euren jarduerak Errege Dekretuan jasotako funtsezko jarduerekin duen lotura, eta

“funtsezko” jarduerak behar bezala garatzeko gutxienez mantendu behar duten ekoizpen eta mantentze lanak ezarriko dituzte.

Industria elektointentsiboa

Ezinbestekoa izango da sistema elektrikoaren hornidura eta egonkortasuna bermatzeko beharrezkoa den **industria elektointentsiboa**.

24.- METALGINTZA; BURDINAZKO, ALTZAIURUZKO ETA FERROALEAZIOZKO PRODUKTUEN FABRIKAZIOA

* Nadia Calviño Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako presidenteordeak gaur eguerdian gai honi buruz egindako adierazpenak erantsi dira.

<https://elpais.com/espana/2020-03-31/rueda-del-prensa-tras-el-consejo-de-ministros-en-directo.html>

<https://www.europapress.es/economia/noticia-calvino-dice-industria-electrointensiva-no-puede-parar-pide-nivel-actividad-20200331164016.html>



Arantxa Tapia

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailburua

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoak 31